

Bilboko eta inguruko gazteei gure zerbitzuaren balorezko proposamena helarazteko, ezinbestekoak izango dira hainbat baliabide erabiltzea eta kudeatzea:

- **Baliabide fisikoak:**

- *Leku finko eta erosoak*: Epe luzean erabiltzeko eta egonkortasuna baimentzen duen toki finkoa alokatzea funtsezkoa. Bertan zerbitzua eraikiko da, eta gunea ahalik eta erosoena eta abegikorrena sortzea lehenetsiko da. Gure proposamena Bilboko alde zaharrean kokatutako pisu bat da.
- *Altzariak*: Aulkiak, mahaia, puf-ak, sofa, etab. Bigarren eskuko denda ezberdinetatik eskuratuko ditugu.
- *Material pedagogikoak eta denbora-pasarako euskarriak*: Alde batetik, koordinatzaileok etxean ditugun eta aberasgarriak izan daitezkeen liburu, jolas edota ikus-entzunezko baliabideak ekarriko ditugu. Parte hartzaileek zerbait ekarri nahi ezkeror, bertaratzeko aukera izango dute. Bestetik, sukoak, izki-sopa eta koloreztatzeko fitxa ezberdinak eskuragarri izango ditugu.

- **Giza baliabideak**: Enpresa bat aurrera eramateko baliabide garrantzitsuenetakoa dira

- *LauArgi taldeko koordinatzaileak*:
 - AINHOA: Lokaletik kanpoko jardueren antolakuntza arduraduna. Gainera, bozeramaile lanak egingo ditu hizkuntza ezberdinak menperatzen dituelako.
 - INAXIO: Sare sozialak, webgunea eta Whatsapp taldea modu egokian aurrera eramatearen erantzulea.
 - IRAIA: Ekintza ezberdinak dinamizatzearen arduraduna izango da. Planifikazioa ondo burututa egotea funtsezkoa izango da eta malgutasunez jokatzeko ere.
 - SARA: Tabernan esperientzia duenez, kafetegia arduraduna izango da. Horrez gain, janaria eta edaria zerbitzatuko ditu. Kafetegian lortutako diruaren erregistroa gauzatu beharko du.

- **Finantzarioak**:

- *Bankuan mailegua*: Koordinatzaileetako bakoitzak bankuan mila euroko maileguaren eskaria eskatuko du.
- *Bizkaiko Foru Aldundia*: EKIMEN EKINTZAILEEN SUSTAPENA 2024: Enpresak abian jartzeko eta sortzeko *laguntzak*.

- [Bizkaiko Foru Aldundia](#): ekonomia sustatzeko sailaren programak, zerbitzuak eta funtsak, bizkaiko ekintzaileei eta enpresei zuzenduta daudena.
- *Vavestenen dirulaguntza*: enpresak sortu, finkatu eta nazioartera zabaltzeko nahi dituzten gazte ekintzaileentzat [dirulaguntza](#).